

L'Arratien taberna



Toti Martínez de Lezea

Itzultzailea: Arratibel Garmendia, Miren

Bilduma: Narratiba, 156

Formatua: 150 x 220 mm

Orrialdeak: 216

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2024-11-23

ISBN-a: 978-84-1093-002-5

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

22,50 €



Urdaibai, gertaleku pribilegiatu bat. Gizon bat Mundakako Santa Katalina ermitarantz doa, asmo argi batekin: bere bizimodu zorigaitzokoari amaiera ematea, munduko olaturik perfektuenetako bat eratzen den eremuan bere burua itsasora jaurtiz. Ez du asmo hori beteko, baina; ezustekoan bizitza irauli, eta bide berri bati ekingo dio.

L'Arratien tabernan topatuko du biziberritzeko aukera Paul Arenek, «Pello» deituak, eta alboan izango ditu Karmentxu, jabea eta bere metamorfosiaren erantzule ezusteko bihurtua, Libe, Irati, Pako, Koldo, Juankar... abegi ona egin eta bere egoera berrian lagunduko dioten herritarrak.

XXI. mendean girotuta dago *L'Arratien taberna*, eta hau da egileak idatzitako eleberrien artean gaurkotasun handienekoa. Prosa arin eta zorrotza, are berritzailea ere, bereizgarri duela, kostaldeko herri bateko biztanleen egunerokotasunera garamatza liburuaren tramak, haien bizipen, traizio, sentipen, iragan ezkutu, entretenimendu eta kezkek elkarri josiz.

Toti Martínez de Lezea



Gaur egun Larrabetzun bizi da. Kukubiltxo antzerki taldearen sortzaile izan zen, eta itzulpen lanez gainera, gidoiak, hezkuntzako bideoak eta telebistarako haur saioak egin zituen, 1983 eta 1992 urteen bitartean.

1986an *Euskal Herriko lelendak* bilduma idatzi zuen. 1998 urtean argitaratu zuen bere lehenengo eleberria: *Judu-kale*. Haren ondoren etorri ziren: *Antsoren dorreak*; *Kattalin*; *Señor de la Guerra*; *Maria Galanta*, *abadesa*; *Ogaiztarrak*; *La voz de Lug*; *La Comunera*; *El verdugo de Dios*; *Hautsi da katea*; *A la sombra del templo*; *Sorginak*; *Bretxa*; *El jardín de la oca*; *Placeres reales*; *Otalorea*; *Perlas para un collar*; *La Universal*; *Pozoia Koroari*; *Urak dakarrena*, *Egunsentiko argia*, *Enda Lur*; *Isilpean gordea*; *Esne eta estizko lurra*; *Amamaren grafitiak*; *Arbasoen ituna*; *Malkoak lur antzuan*, *Sorgin belarra*, *Egurra S.A.* eta *Artadi*.

Idazle emankorra da, eta gazte literaturan ere jardun du. *Erregearen mezularia*, *Ilargiaren alaba*, *Antso III. Nagusia* eta *Muerte en el priorato* dira horren erakusgarri. Haur literaturan *Nur* da bere pertsonaia izarra, hemezortzi izenburuz osatutako saila.

Frantsesera, alemanera, portugesea, errusierara eta txinerara itzuli dituzte bere lanak bes-teak beste, eta hainbat komunikabidetako ko-laboratzaile aritzen da.